

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AXPURUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, Abarduia izeneko VI-10.133 ehiza esparruko aprobetxamendu zinegetikoarena

Axpuruko administrazio batzarrak, ohiko bilkuran, kontratazio espedientea onartu zuen Abarduia izeneko VI-10.133 ehiza esparruko aprobetxamendu zinegetikoa esleitzeko, lehiaketa publikoz.

Lehiaketa

1. Erakunde esleitzaila: Axpuruko Administrazio Batzarra
2. Kontratuaren xedea: Abarduia izeneko VI-10.133 ehiza esparruko aprobetxamendu zinegetikoa.
3. Izapidetzea eta prozedura. Izapidetzea: urgentea; prozedura; irekia; esleitzeko era: lehiaketa.
4. Esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak:
 - Bertako ehiztarien ordezkari eta parte hartzea ehiza esparruaren kudeaketan eta gozamenean: gehienez 5 puntu.
 - Erantzukizun zibileko aseguruaren bermeak: gehienez 3 puntu.
 - Eskaintza ekonomikoa: gehienez puntu 1.
5. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea: 679267647 telefono zenbakira deituz, 13:00etatik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta zortzi egun naturaleko epean.
6. Errentamendu aldia: hamar (10) urte.

Abarduia izeneko VI-10.133 ehiza esparruko aprobetxamendu zinegetikoa esleitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko sail eskudunak onartu egin beharko du hura berritzeko espedientea.

Axpuru, 2016ko urriaren 27a

Lehendakaria

FELIX LÓPEZ DE URALDE OLALDE